



Aitorpen berri bat Alfabetazio digitalean eta eAdministrazioan diharduten telezentroen euskal sareari buruz



KALITATEAREKIN HARTURIKO KONPROMISOARENGATIK KZGUNEA ZERBITZUEN KARTAK “AENOR UNE 93200:2008 ZIURTAGIRIA” JASO DU

Eusko Jaurlaritzaren proiektu bati ematen zaion lehenengo UNE 93200:2008 ziurtagiria da

Kalitatearekin hartu duen konpromisoarengatik eta herritarrengandik hurbil egoteagatik, “KZgunea Zerbitzuen Karta” izenekoari buruz AENORrek UNE 93200:2008 arauan ziurtagiria eman dio Eusko Jaurlaritza lider eta sustatzaile duen KZguneari. Hain zuzen ere, KZguneak Euskal Autonomia Erkidegoko 250 udalerrietan 275 zentro operatibo ditu. Emandako ziurtagiria da arau berri honi buruz Eusko Jaurlaritzaren proiektu batek lorturiko lehenengoa.

“KZgunea Zerbitzuen Karta” deritzonak Eusko Jaurlaritzaren konpromiso publikoa ziurtatzen du KZgunea zentro guztietatik kalitatezko zerbitzua eskaintzeko, aldi berean erabiltzaileen poztasuna lortu nahi duela. Gainera, zerbitzuen kudeaketan hobekuntza nabariak dakartzan tresna bat da zerbitzuen barne kontrola konprometitzen baitu.

Gainera Kartaren ziurtagiriak berez darama aipaturiko konpromisoen betetze maila erabiltzaileei aldiro jakinaraztea, gardentasun horrek berezko duen eskakizuna gordetzen delarik.

Aipaturiko Karta ziurtatzeko arreta berezia eman zaie erabiltzaileen itzaropenei baita hartutako konpromisoak betetzearen jarraipenari ere. Honela, zerikusia duten alderdi guztien partaidetza dugula, KZguneetatik eskainitako zerbitzua eten gabe hobetuko da herritarren onerako.

KZGUNEA PROIEKTUA

KZgunea telezentroen sare publikoa funtsezko osagaia da Euskadi Informazioaren Gizartean aurrerapausoak eman daitezen. Proiektu honek dagoeneko hiru erronka gainditu ditu:

- ✓ Izena eman duten erabiltzaileen artean EAEko 15 urtetik gorako biztanle guztien %10 sartu ditu.
- ✓ Biztanleria multzo horren %4ri prestakuntza eman dio Interneten nabigatzeari buruz.
- ✓ Euskal Autonomia Erkidegoko udalerri guztietan agertzen da.

Horiek horrela, telezentroen laguntzari esker gaur egun gure biztanleriaren ia erdiak aitortzen du ohiko internauta dela.

Prestakuntzarako eta Interneterako sarrera publiko, doan, lagundutako eta unibertsaleko KZgunea sareak, herritarren haustura digitalaren aurka borrokatzeaz gain, gerora begira dihardu Administrazio elektronikorako bultzatzeko balio duen plataforma bihurtzeko helburuz.

Gaurdaino 275 telezentroek batez ere honako emaitza balantze hau dute:

- 300.000 erabiltzailek eman dute izena
- 115.000 lagunek oinarrizko Interneteko prestakuntza jaso dute
- 40.000 lagunek Internet aurreratuan eta berriazko mintegietan prestakuntza jaso dute
- 26.000 lagunek IT Txartela egiaztatu dute (IKT direlako ezagupenei buruzko ziurtagiria)
- 7.000 profesionalek ikastaro sektorialak jaso dituzte (KZ Prestakuntza Mikroenpresak)

Vitoria-Gasteizen, 2009ko otsailaren 23an

Argibide gehiago nahi izanez gero: www.kzgunea.net